

## DEFINIZIOAK

### HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN ESTADISTIKA (090211)

#### Hondakinak

Edukizailleak bota edo botatzeko asmoa edo beharrezana duen zeinahi objektu edo sustantzia.

#### Hondakin Ez-Arriskutsuak (HeA)

Inbentarioan edozein motako hondakin ez-arriskutsuak daude jasota, honako hauek izan ezik: hondakin arriskutsuak, hiri-hondakinak eta eraikuntzako eta eraisteko hondakinak.

Inbentarioan jasota daude hondakin industrial ez-arriskutsuak (fabrikazio-prozesuek, transformazio-prozesuek, erabilerak, kontsumoak, garbiketak edo mantenuak sortutako hondakinak), baita hondakin-sorkuntzaren inguruan informaziorik ez dugun gainerako jarduera ekonomikoek sortutako hondakin ez arriskutsuak ere, bai zerbitzu zein nekazaritza eta elikagaien sektorekoak.

#### Hondakin mota: HEZ kodeak

Hondakinen Europako Katalogoarekin (HEZ) bat datorren hondakin sailkapena. Hondakin arriskutsuen zerrendan asterisko batez eta Hondakinen Europako Katalogoaren laburpen txiki batekin adierazita agertuko da (Hondakinen Europako Katalogoa, HEZ, maiatzaren 3an Batzordeak onartua, [Erabakia 2000/532/CE](#), eta honako erabaki hauen bidez moldatua: Batzordearen [Erabakia 2001/118/CE](#), urtarrilaren 16koa; Batzordearen [Erabakia 2001/119/CE](#), urtarrilaren 22koa, Kontseiluaren [Erabakia 2001/573/CE](#), uztailaren 23koa eta Batzordearen [Erabakia 2014/995/CE](#), abenduaren 18koa).

#### Hondakinen kudeaketa

Hondakina batu, garraiatu eta tratatzea da, - eragiketen zaintza barne-, baita zaborteziak itxi eta gero egin beharreko mantenua -negoziatzaile eta agente gisa egindako jarduerak barne-.

#### Hondakinak kudeatzeko erak

Ezberdindu egin behar dira, deuseztatzea, erraustea, birziklatzea eta balorizazio energetikoa.

- **Deuseztatzea:** balorizazioa ez den ezein jarduera, baita bigarren mailako ondoriotzat sustantziak edo energia aprobetxatzea eragiten duen eragiketak ere.
- **Erraustea:** Lurreko erraustetaren bidez deuseztea.
- **Balorizazio edo birziklapena:**
  - o Balorizazioa: Bestela, funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen beste material batzuk ordezkatzerakoan, hondakinak helburu erabilgarria izatea edo hondakinak instalazioan edo ekonomia orokorrean funtzio hori betetzeko prestatzea emaitza nagusi duen edozer eragiketa.
  - o Birziklapena: Hondakinen materialak berriz jatorrizko helbururako edo beste helburu baterako produktu, material edo sustantzia bihurtzen dituen edozer balorizazio-eragiketa. Barne hartzen du materia organikoaren

transformazioa, baina ez balorizazio energetikoa, ez eta erregai gisa edo betetze-eragiketarako erabiliko diren material bihurtzea.

- **Balorizazio energetikoa:** helburu nagusia erregai gisa edo energia sortzeko erabiltzeko moduko balorizazioa.

### **Hondakinen kudeatzailea**

Hondakinen kudeaketa osatzen duen zeinahi eragiketa egin eta baimen edo jakinarazpen bidez erregistratuta dagoen pertsona edo erakundea, publikoa zein pribatua, hondakinak sortu dituen ala ez aintzat hartu gabe. Kokapenaren arabera ezberdintzen dira hondakin kudeatzaileak EAEkoak eta EAETik kanpokoak.

### **Tratamendu eragiketak**

Apirilaren 8ko, 7/2022 Legearekin, hondakin eta lur kutsatuenean, deusezteko eragiketak ezberdintzen dira( III eranskina) eta balorizatzeoak( II eranskina). Jarraian tratamendu eragiketa ezberdinak zerrendatzen dira:

<b><i>Deusezteko eragiketak</i></b>	
<b><i>D/R Kodea</i></b>	<b><i>Deskribapena</i></b>
D1	Lurraren gainean edo lurpean jalkitzea (esate baterako isurketa,etab.).
D2	Lurrean egindako tratamenduak (esate baterako, hondakin likidoen biodegradazioa edo lohia lurrazalean eta abar).
D3	Sakoneko injekzioa (esate baterako, ponpa daitezkeen hondakinak putzuetan, gatz-meatzeetan edo faila geologiko naturaletan eta abarretan injektatzea)
D4	Azaleko urtegia (esate baterako, hondakin likidoak putzuetara, urmaeletara eta abarretara isurtzea).
D5	Hondakinak botatzea, horretarako bereziki diseinatutako tokietan (esate baterako, banakako gelaxka itxietan eta estalietan sartzea, elkarrengandik eta ingurumenetik isolatuak).
D6	Uretara egindako isurketak, itsasora izan ezik.
D7	Itsasora egindako isurketak, baita itsas hondoon sartzea ere.
D8	Taulan zehaztu ez diren tratamendu biologikoak eta D01-D12ren arabera ezabatzen direna.
D9	Eranskin honetako beste atal batean zehaztu ez den tratamendu fisiko-kimikoa, baldin eta horren ondorioz sortutako konposatuak edo nahasketak d01 eta d12ren arteko prozeduraren baten bitartez ezabatzen badira (adibidez, lurrunketa, lehorketa, kiskalketa, etab.).
D10	Lurrean erraustea.
D11	Itsasoan erraustea.
D12	Biltegi iraunkorrak sortzea (esate baterako, meategiren batean edukiontzia jarri eta abar)
D13	D01 eta D12ren arteko prozeduraren bat egin aurretiko konbinatzea edo nahastea.
D14	D01 eta D13ren arteko prozeduraren bat egin aurretiko berrontziratzeak.
D15	D01 eta D14ren arteko prozeduraren bat egin aurretiko biltegitratzeak (alde batera utzita aldi batera biltegitratzea batzeko zain hondakina sortutako lekuan).

<b>Balorazio eragiketak</b>	
<b>D/R Kodea</b>	<b>Deskribapena</b>
R1	Erregai gisa edo energia sortzeko beste bide gisa erabiltzea.
R2	Disolbatzaileak berreskuratzea edo onera ekartzea.
R3	Disolbatzaile gisa erabiltzen ez diren substantzia organikoak (konposta eta eraldaketa biologikoko bestelako prozesuak barne).
R4	Metalak eta konposatu metalikoak birziklatzea eta berreskurat.
R5	Beste gai ez-organiko batzuk birziklatzea edo berreskuratzea.
R6	Azidoak edo baseak leheneratzea.
R7	Kutsadura kentzeko erabilitako gaiak balioztutakoa.
R8	Katalizatzailetako osagaiak balioztutakoa.
R9	Olioak leheneratzea edo beste erabilera bat ematea.
R10	Lurrak tratatzea eta haien kalitate ekologikoa hobetzea.
R11	R01-R10 eragiketen ondorioz sortutako hondakinak erabiltzea.
R12	Hondakinak trukitzea R01-R11 bitarteko tratamenduren bat egin aurretik. atal honetan barneratuta daude balorizazioa egin aurretiko operazioak, aurretratamendua barne, eta desmuntatzea, sailkatzea, txikitzea, trinkotzea, pelletizatzea, lehortzea, zatikatzea, egokitzea, berrontziratzea, konbinatzea, bezalako operazioak edo nahastea, R01-R11 bitarteko tratamenduren bat egin aurretik.
R13	R01-R12 eragiketak egin aurretik hondakinak metatzea (alde batera utzita aldi batera biltegitratzea batzeko zain hondakina sortutako lekuan).